

Kanalak

Gure bezeroak herri desberdinetan dauden tabernen eta jatetxeen jabeak dira. Horretarako, garrantzitsua da, gizartea (bereziki tabernetan lanean dagoen jendeari) kontzientziatzea zein garrantzitsua den gure proiektua eta zein lagungarria izango den janaria behar duen jendearentzat. Beraz, publizitatean jarriko dugu arreta handiena gure bezeroengan inpaktu bat sortu nahi dugulako, horrela, beraien borondatez, gurekin parte hartzea erabakiko dute. Alde batetik, gaur egun dagoen pobrezia, eta bestetik, egunero botatzen duten janaria zer nolako erabilera berria izango duen aurkeztuko dugu.